

EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK

Bilbo'n Euskaltzaindiaren etxean, 1929'ko Iibel-
tza-ren 24'an.

Batzañaldian euskaltzain jaun abek bildu ziran : Azkue-maipuru, Urkijo, Landeñetxe, Altube, Intza, Lakonbe ta ordezeko urgazleak Oleaga ta Ormaetxea. Otoitz egin da.

I.—Azkue jaunak lan bat irakurri digu. Lan ontarako bide izan zaio Añibañok utzitako esku-idazki bat ta onentxen izena auxe da : *Voces vascongadas diferenciales de Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra, con la distinción que les da cada provincia.*

II.—Diruzai jaunak, gure dirutzaren gora-berak agertu dizkigu. Ikusten danez, eman-artuetan zerbait irabazi degu, gure beañetan urri-xamar ibilita. Irabazte auxe ongi datorkigu, Iztegi beñiak dakarzkien eralki-etarako.

III.—Euskaltzaindiak, Daranatz Bayona'ko kano-nigo jaunaren liburu bat bereganatzea erabaki du. Liburu au, auxe da : *Recherches sur la ville et sur l'Eglise de Bayonne.*

IV.—Euskaltzain jaunak jardun dute Iztegiko lan-etan, len utzitako utsunak betetzen, eta *ab intestato* arte iritxi dira.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzirik, otoitzez amaitu da batzañaldi au.